

KORONABIRUSA - ATZOKO DATUAK

GIPUZKOAN

0 positibo berri
2.307 positibo guztira*

283 hildako

NAFARROAN

153 positibo berri
8.235 positibo guztira

501 hildako
124 ospitalizatuta

*Hernanin 55, Astigarragan 20

Sendatuak: EAE 16.028, Nafar. 3.658

Gaur hasiko dira igandetako mezak berriro, neurri bereziekin, Urumea bailarako eliza gehienetan

Igandetako mezak berreskuratuko dituzte gaur, Astigarraga, Hernani, Ereñotzu eta Goizuetako elizetan; Aranon, oraingoz ez dira hasiko. Ohiko ordutegian izango dira igandeko mezak. Asteazkenean, hileta elizkizunak bakarrik egingo dira.

URUMEA ELIZA

Gaur berreskuratuko ditu igandetako mezak Goizuetako elizak, eguerdiko 12:30etan; eta baita Urumea Harana Pastoral Barrutiak ere, bere eliza guztietan. Hernaniko Agustinetakoa izango da salbuespen bakarra: bertan 09:00etan egiten den meza, San Joan Bataiatzailea parrokiara aldatuko dute.

Hori horrela, Hernanin hiru meza izango dira: bi San Joan Bataiatzailean, goizeko 09:00etan eta eguerdiko 12:00etan; eta bes-

te bat Floridako San Jose Langilean, goizeko 11:00etan.

Ereñotzun, berriz, 10:00etan egingo dute meza San Antonio elizan, ohi bezala.

Eta Astigarragako Andre Maria elizan, 10:30etan izango da.

Zenbait ohar eman dituzte, hala ere. Batetik, osasun arazoak dituztenei, edota urte asko dauzkaten, gomendatu diete etxetik parte hartzea mezetan, irratian zein ETBn emandako eukaristietan. Elizara joatekoak direnei, berriz, eskatu diete eskuak ondo garbituta joatea, eta

maskarillarekin bada, hobeto.

Gainera, gogora ekarri dute elizako tokien heren bat bete daitezkeela bakarrik, oraingoz.

Asteazkenean, hiletak bakarrik Ohiko mezarik ez da izango asteazkenean. Egingo diren bakarrak, hiletak ospatzeko mezak izango dira, Astigarragan, Hernanin, Ereñotzun eta Goizuetan. Hernaniren kasuan, San Joan Bataiatzailean egingo dituzte denak.

Jakinarazi dute, gainera, ospatu gabeko hileta mezak, ekaineko eta uztailleko larunbatetan ematea proposatuko dietela beren senitartekoei.

Aranon, oraindik ez

Aranoko elizan, ordea, oraingoz ez da elizkizunik izango, ez astegunetan eta ez igandean. **K**



Gaur hasiko dira igandetako mezak berriro, Astigarragako elizan ere.

30garren urteurreneko Kantuz Eguna, etxetik etxera kantari: «konfinatuta ere, ez gara ixilduko»

Urteurren borobilean, Kantuz abesbatzak ezingo du urteroko kontzertu berezia eskaini, baina bideoa grabatu du, bazkideekin eta herritarrekin konpartitzeko eta haiei eskerrak emateko: 'kronika.eus' web orrian dago ikusgai.

HERNANI KANTUZ ABESBATZA

Urteurren borobila du aurten Kantuz abesbatzak, 30garrena; baina ezin izango dute nahi bezala ospatu, oraingoz behintzat. Ezingo diete eskaini, bazkideei eta herritarrei, urtero maiatzaren eskaintzen dieten emanaldi berezia, Kantuz Egunekoa.

Ez dute kantatu gabe geratu nahi izan, ordea: «konfinatuta ere, ez gara ixilduko», adierazi dute. Eta kontzertuaren partez, bideoa grabatu dute, Akelarre-

ren Kantuz abestia kantatzen, abesbatzako kideek. Ikusgai dago bideoa, kronika.eus web orrian, albiste honekin batera; edota Kantuz Abesbatzak Youtubean daukan kanalean.

Osasun alarma egoera honetan, bideoa ikustera gonbidatu dituzte herritar guztiak: «espero dugu bideoaz gozatzea». Aukera aprobetxatu nahi izan dute, gainera, abesbatzako bazkideei eskerrak emateko, «zuen laguntza eta babesagatik»; eta baita hernaniar guztiei ere. **K**



Kantuz abesbatzako kideak, joan den urteko Kantuz Eguneko kontzertuan, Milagrosako kaperan.



Obradore nagusia Akarregin
Akarregi poligonoa 14A-2
DENDA, KUTIXIAK ETA KAFETEGIA
Ordutegia: 5:30-14:30 / 16:00-20:00
Jalegunetan: 7:00-14:30

Denda herriko kaxkoan
Lizeaga kalea 4
OGIA ETA BOLLERIA AUKERAN
Ordutegia: 7:00-14:00 / 17:00-21:00
Jalegunetan: 7:00-14:00

Ogi egin berria
beti zure eskura



ADARRAGA
Konfitegia
Pasteldegia

Urbietta Etorbidea 7
☎ 943 55 09 10

Samitek
Bulego makinaren salmenta eta mantenimendua
samitek@samitek.es
www.samitek.es

TOSHIBA
INFORMATIKA
SAIL BERRIA

943 11 77 44

Dokumentuen kudeaketa
Ez galdu paperak

80 urte



Zorionak amona Pilar!
Zure etxekoan partez

GAUR Giro eguzkitsua nagusituko da gaur. Goizean behe-laino ugari izango dira oraindik, baina eguerditik aurrera, lainoak gubxitu eta ostarteak zabalduko dira. Ipar-haizea ibiliko da, eta temperatura koxka bat igo arren, giroa frexkoa izango da. **Min.12° / Max.16°**

BIHAR Giro lasaia izango dugu, goizean ipar partean lainotu xamar egon arren. Arratsaldean eguzkitsua izango da, eta haizea oraindik iparraldetik sartuko den arren, beste koxka bat izango dira tenperatura maximoak. **Min.11° / Max.19°**

TAXIAK: 943 550093 (Hernani) 622 222 343 (Astigarraga) 948 514037-948 514019 (Goizueta) **UDALTAINGOA:** 943 248900 (Hernani) 943 335230-699 487 587 (Astigarraga) **DYA:** 943 464622
AUTOBUSAK: Garayar: 943 556658 Areizaga: 943 452708 Korreoa Goizueta-Hernani: 948 514037 **ANBULATORIOA:** 943 006666 - 900 203050 (Hernani) 943 335644 (Astigarraga) 948 510800 (Goizueta) **Egunez:** Gomez Kale Nagusia, 14 (Hernani) **943 554892** Gauez: **Urrutia** Etxeberri, 1 (Hernani) **943 557738** Goizueta: Nagusia 64 **948 514353**



Frontoia erabili dezakete federatu eta profesionalek, txanda eskatuta

Goizuetako eskolako frontoia erabilgarri izanen dute, baina bakarka aritzeko.

GOIZUETA UDALA

Xalto eskolako frontoia zabaldu du Goizuetako Udalak, eta dagoeneko aritu daitezke bertan, herriko pilotariak. Hori bai, kirolari federatuek edo profesionalek bakarrik izanen dute erabiltzeko aukera, eta bakarrik aritu beharko dute bertan.

Frontoia erabili nahi duenak, alde zurretik eskatu beharko du txanda, Goizuetako udaletxera deituta: 948 51 40 06.

Egunean ordubete, gehienez Kirolari bakoitzak, egunean ordubetez aritu ahal izanen du



Xalto eskolako frontoia zabaldu du Goizuetako Udalak, berriro.

gehienez, eta frontoia erabiltzeko ordutegia ere jarri dute: goizez, 10:00ak eta 14:00ak bitartean egonen da zabalik; eta arratsaldean, berriz, 16:00etatik 20:00etara. Larunbat eta igandeetan, goizetan irekita egongo da, baina arratsaldetan itxi egonen dute.

Bukatzean, garbitu eta desinfektatu

Beste baldintza bat ere jarri du Goizuetako Udalak, frontoia erabili nahi dutenentzat: beraien txanda bukatzean, frontoia garbitu eta desinfektatu egin beharko dute, hurrengo kirolaria sartu aurretik. **K**

Nagore Ruiz de Arbulorena, aurtengo San Joanen kartela


Hernaniarrak irabazi du kartel lehiaketa, botoen %31,5arekin.

HERNANI SAN JOAN JAIK

Oraindik zalantzan dago, nolako San Joan jaiak izango diren aurtengoak; egitarau alternatibo bat osatu nahian ari dira, ohiko festak ospatzea ezinezkoa izango dela ikusita. Baina San Joanak iragartzeko kartela zein izango den, dagoeneko eman dute aditzera: Nagore Ruiz de Arbuloren hernaniarrak aurkeztutako kartelak irabazi du, aurtengo lehiaketa.

Lehiaketara aurkeztu ziren 12 proposamenen artean, lau aukeratu zituen Jai Batzordeak, eta horien artean bozkatu dute gustukoena herritarrek, internet bidez.

816 herritarrek eman dute botoa, eta estua izan da bozketa. Izan ere, 257 boto jaso ditu Ruiz de Arbuloren kartelak, %31,5a; baina gertu izan du bigarren sailkatua (laugarren aukera zena), 244 botorekin. Beste bi kartelek ere, boto asko jaso dituzte: 169 boto lehenengo aukerak, eta 146 boto hirugarrenak. **K**



Nagore Ruiz de Arbulok aurkeztutako kartela, lehiaketa irabazi duena.

LGTB fobiaren kontrako egunez, lehiaketa gaur

Kattalin Minerren 'Moio, gordetzea ezinezkoa zen' liburuaren bi ale zozketatuko dira, asmatzaileen artean.

HERNANI-ASTIGARRAGA GAZTELEKUA

LGTBI fobiaren aurkako Nazioarteko Eguna da gaur, eta hori ospatzeko zita jarri du Hernaniko Gaztelekuak. Herenegun elkarriketatu zuten Egoitz Albeniz hernaniarra, Hiruki Larroxa kolektiboko kidea, @hgaztekeua Instagram kontuan, zuzeneko

saioan. Eta gaur, Instagramen bertan, lehiaketa egingo dute: Albenizek berak prestatu duen galdetegia zabalduko dute, eta galdera-sorta zuzen erantzuten dutenen artean, zozketatuko dituzte Kattalin Minerren *Moio, gordetzea ezinezkoa zen* liburuaren bi ale.

'El mayordomo' pelikula ikusteko zita, Astigarragan Astigarragako Gaztelekuak, bere aldetik, *Gaztezinemarekin* jarri du hitzordua gaur. Eta internet bidez, *El mayordomo* pelikula ikusiko dute nerabeek, bi ordu eta laurdenekoa. **K**

'Gure artean ibiliak' saioak, azkenekoa gaur

Arratsaldeko 19:00etan hasita, sei saioetako momentu onenak gogoratuko dituzte.

HERNANI FUTBOLA

Gaur egingo du azkeneko saioa CD Hernanik, konfinamenduan martxan jarritako *Gure artean ibiliak* programan. Eta oraingoan ez da gonbidatu berezirik izango; bukaera emateko, egin-

dako sei saioetako «momentu onenak gogora ekarri eta ondo pasatzeko tartea» gidatuko dute taldeko aurkezleek.

Arratsaldeko 19:00etan izango da, ohi bezala, CD Hernaniren Twitch sare sozialeko kanalean: [twitch.tv/cdhernani](https://www.twitch.tv/cdhernani). Saioa zuzeneko ikusteko aukerarik ez duenak, gerora ere ikusi ahal izango du, taldearen Youtubeko kanalean. Bertan daude dagoeneko, aurreko sei saioak ere. **K**

Hilerriak zabalik berriro, aurrerantzean

GOIZUETA-HERNANI HILERRIA

Gaurtik egongo da zabalik, berriro ere, Goizuetako kanposantua. Hernaniko hilerria, berriz, bihar irekiko dute, eta goizetan egongo da zabalik, 08:00etatik 13:00etara, Udalak jakinarazi duenez.

Maialen Lujanbioren ibilbideaz, gaur

HERNANI HITZETIK HORTZERA

Maialen Lujanbio bertsolari hernaniarra izango da protagonista gaur, ETB1eko Hitzetik Hertzera saioan, 15:00etatik aurrera. Denboraldia amaitu berri du programak, eta gaurkoan, berreskuratuko du Lujanbioren ia hiru hamarkadako ibilbideari eskainitako saioa.

Osteguneko sagardo katarako, gaur arte

URUMEA EUSKAL SAGARDOA

Maiatzeko ostegun guztietan bezala, datorrenean ere egingo dute sagardo dastaketa gidatua, 19:00etan online, Mikel Garaizabalen eskutik. Parte hartzeko, gaur arte erosi daitezke txartelak interneten, sagardoa.eus web orrian. 15 euro dira, eta trukean, etxean jasoko dira hiru Euskal Sagardoa botila, eta hiru kopa.

IRAGARKI MERKEAK

Iñigo Royo Masajista. Masajea, naturopatia, osteopatia, kinesiologia, reiki, homeopatia, akupuntura,... **Deitu: 943 33 28 94 - 626 80 76 33 (Agustindarren plaza, 4)**